

## Hiltzaileak

Iñaki Camino

*Argia*, 1.076. zk., 1985-10-14/21: 4.

60.ean argitaratu zituen ipui hauek Martin ugaldek Venezuelan, eta 25 urte beranduago Erein-ekin Euskal Herrian. Bigarren argitarapen honetan, lehen gipuzkeraz zeudenak batura pasa dira. ipuiak bost dira, neurri laburrekoak denak. "Gizerrailza" deritzanean, gerra garaiko fusilamenduak dauzkagu protagonista. Andoaingo abertzale ondradu bat atera egiten dute etxetik kamioiean afusilatzen eramateko. Idazleak kontatzen diguna prozesua da.

"Alperra" izenekoan, tren batean guardia zibil bi sartzen dira jendeari dagozkion eserlekuak hartuz. Zenbait gorabeheraren ondoren detenitu egiten dute gizon bat, baina herriak ez die utziko.

"Arrak eta emeak" izenekoan, aitona batek guardia zibilei erakusten dien ausardia eta argitasuna kontatzen zaigu.

"Xabaleren hazia", Donostiara Bergaratik torturatzera dakarten gazte baten pasadizoa da. Besteak saltzeko beldurrez, zerbait egin behar duela erabakitzen du, inoren izenik ez aitatzearren Donostiako estazioan bere burua trenera boteaz.

Azkena, "Zeletaka" izenekoan dugu, herri ttiki batean, salatari bat dagoen susmoa dute abertzale batzuk, eta bera harrapatzearren guardia zibillaren koartelaren aurrean geratzen dira zain.

Ipui guztiei darien etsipen usaiak gain, egileak une larriak deskribitzeko duen gaitasuna aipa liteke.